

BERRIGARA

99. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, martxoak 12

**JOSEBA
ASKASIBAR
PRESOARI
ONGI
ETORRIA**

●

**GAZTETXEA
ASTELEHENEAN
EPAITEGIRA**

●

KIROLAK

**GORLAKO
TXIRRINDULARI
IGOERA
JOKATUKO DA
IGANDEAN**

●



**DENDARIAK:
... ETA ZAZPIGARREN
EGUNEAN... LANERA**

Zure jaunartze argazkietarako

KIÑU

Barrenkalea, 35 ☎ 76 58 05




BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

ESKOLAURRETIK UNIBERTSITATE EDOTA LANBIDE MUNDURA
ARTEKO ESKAINTZA OSOA (2 - 19 urte)



SAN MARTIN DE AGIRRE
ESKOLAURREA OHO (EGB). 2 - 14 urte.



LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA
IEE (REM) BATXILGERO TEKNIKOAK, LANBIDE
HEZIKETA MODULOAK. 14 - 19 urte.



BATXILGERO INSTITUTUA
BBB (BUP) UBI (COU). 14 - 18 urte.



ANGIOZARĶO ESKOLA
ESKOLAURREA OHO (EGB). 2 - 14 urte.

• **D, B eta A EREDUAK:** D DENA EUSKARAZ / B ELEBIDUNA / A GAZTELERAZ, EUSKARA IRAKASGAI BAT IZANIK.

• **ARLO GUZTIETAN ESPEZIALIZATUA:**
IRAKASLE ESPEZIALIZATUAK, LIZENTZIATUAK ETA TEKNIKARI PROFESIONALAK.

• **BEHAR DEN GUZTIRAKO PRESTATUTA ETA HORNITUTA:**
LABORATEGIAK, LIBURUTEGIAK, INFORMATIKA-GELAK, IKUS-ENTZUTEKO GELAK, TAILERRAK...

AURREMATRIKULATZEKO EPEA:
SAN MARTIN IKASTETXEA: MARTXOAREN 1etik 15 era.
BATXILLERGO INSTITUTUA eta LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA: MAIATZAREN 3tik 14ra.

2 URTETIK 19 URTERA ARTEKO EUSKAL HEZKUNTZARAKO BIDEA

MATRIKULA DOHAINIK

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkoroberezar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta
Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkoroberezar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiflu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

EMAKUMEAK

Emakumea izan da asteko protagonista, astelehenean ospatu bait zen mundu osoan zehar Emakume Langilearen Eguna. Horren inguruan Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak gure herrian antolatutako Emakumearen IV. Ihardunaldiei buruz Alazne Iratzabal zerbitzuko arduradunak zera esan digu; *"orainarteko erantzuna ona izan da, baina etxeoandra gebiago etortzea espero genuen. Era berean, beste edizioetan baino gizonetzko gebiago etorri dira".*



Gaurko emakumearen egoera, Alaznek ai-

patzen duenez, *"okerrera egin du; gure herrian adibidez langabetuen % 62,6a emakumezkoak dira, gebiago sufritzen dituzte langabeziaren ondorioak".*

Astebukaeran, erakusketak Kultur Etxean eta igandean antzerkia izango dira.

Astebukaeran Emakumearen IV. Ihardunaldien amaiera

ITURRI ONETIK

Zezen plaza herriko jaietan

Udaleko Kultura, Jaiak eta Gazteria Batzordeak Pentekoste Jaietarako Beheko Estazioan zezen plaza desmontagarri bat jartzeko asmoa du. Frontoiak jaialdiak antolatzeko dituen eragozpenak eta Plaza ere oraindik obretan izango dela kontutan izanik, zenbait ekitaldi bertan egingo lirateke. Barrenkaletik Beheko Estaziora doan bidean (Bidekurutzeta zeharkatuz eta Lasa Jatetxetik behera), enzierruak antolatzeko ideia ere aztertzen ari da Udala.

ESAN DUTE

"Gaurko egunean merkatuan dabilen enpresa batek ezin du alboratu utzi *reciclaje continuo* deritzona, egunero ikasten jardun behar da; teknika aldetik, hezkuntza aldetik...",

MIKEL LAZPIUR

Enpresaria
LOIOLA IRRATIA

"18 urtera arte ikasi eta gero lanean hastearen eskema apurto egin da.

Norberaren inizatibak ere zeresanik badauka aurrera egiteko".

MARIJE UNAMUNO

Udal teknikaria
LOIOLA IRRATIA


"Kanpoko inbersioa ez badator hemen gauza gutxi dago egiteko. Bertako arazoak konpondu behar ditugu".

VICTORIANO GALLASTEGI

Bergarako alkatea
LOIOLA IRRATIA



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak


Barrenkale 44 BERGARA

**DRACULA**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30 eta
22.30.Igandea: 17.00, 19.30. eta
22.15.

Astelehena: 19.30.

**REGRESO
AL FUTURO III**

Igandea: 11.30.

**BELLE EPOQUE**

Osteguna: 22.30.

Zinea

▼▼ **Dracula**
mitoaren bertsio berri bat egitera ausartu da **Francis Ford Coppola**. Honetan besteetan baino ikuspegi erromantikoagoa ematen zaigu eta horretarako aktore ezagunetz inguratu da Coppola: **Gary Oldman, Winona Ryder** eta **Anthony Hopkins**.

▼▼ Aurreko bi zati arrakastatsuen bidetik, berriz ere **Michael J. Foxek** iraganera egingo du bidaia eta situazio barregarriak sortuko zaizkio, are gehiago bakeroen oestean.

▼▼ **Fernando Truebak** eginiko azken filmak kritika ezinhobeak jaso ditu bere estrainalditik eta **Goya** sarietarako ere faborito nagusiena dugu. Aktore/aktorea ezagunenekin, komedia eta drama tartekatzen ditu.

Erakusketak

▼ **Emakumeek** egindako eskulanak eta Eulalia Abaituaren argazki erakusketa egongo dira ikusgai Kultur Etxean martxoaren 14ra arte.

▼ **Fernando Arenazaren** marrazki erakusketa Nahikari tabernan martxoaren amaierara arte. Bergarar honek bere azken lanak ikusgai ditu.

Farmaziak▼ **Larunbata 13:**

Guallar.

▼ **Igandea 14:**

Guallar.

▼ **Astelehena 15:**

Estella.

▼ **Asteartea 16:**

Mozos/Corcuera (Arrasaten gauz).

▼ **Asteazkena 17:**

Camacho/Irizar.

▼ **Osteguna 18:**

Puy/Amezua.

▼ **Ostirala 19:**

Guallar/Morales.

Ogia▼ **Igandea 14:** Konde.**ETXAGI****Jatetxea**Afariak - Bataioak
JaunartzeakEguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**ETXEBERRIA****ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Ikuskizunak

▼ **Hitzaldia.** "Kristau balore etikoak *arlotz sozialean*". Hizlaria: Francisco Jabier Kerejazu. Astear-tean 8etan UNEDen, Arrasate eta Bergara Artziprestaldeko Helduen Komisioak antolatuta.

▼ **Bideoa.** JARDUN Elkarteak haurrentzako antolatzen dituen bideo emanaldiak direla eta, larunbatean, hilak 13, "*Aran sorgin-duaren bila*" emango da goizeko 11etan Kultur Etxeko erakusgelan.

Aukeran

▼▼ **Felipe Uriarte** mendizalearen bideo emaldiak ikus ahal izango dituzue astean zehar arratsaldeko 8etan hasita.

Lehenengoa izan ezik, beste hirurak UNEDeko aretoan eskeiniko dira: "Inkeen herrian" (astelehenean, Kultur Etxean), "Sagarmatha 90" (astear-tean), "Ganges iturritaraino" (asteazkenean) eta "Makalu, beltz haundia" (ostegunean).



Kirolak

▼ Eskubaloia:

- *Bergara-Usurbil* (kadete mutilak). **Larunbatean** 16.00etan.
- *Bergara-Hernani* (jubenil mutilak). **Larunbatean** 17.15etan.
- *Bergara-Aloña-Gazte* (kade-tek neskak). **Larunbatean** 18.45-etan.

▼ Futbola:

- *Bergara-Segura* (2. mailako jubenila). **Larunbatean** 15.30etan Ipintzan.
- *Bergara-Beti-Ona* (lehen mailako kadetea). **Larunbatean** 17.15etan.
- *Bergara-Arrasate* (2. mailako infantila). **Igandean** 10etan.
- *Bergara-Antoniano* (2.

mailako kadetea). **Igandean** 11.30etan.

▼ Saskibaloia:

- *Bergara-Goterra* (jubenil mutilak). **Igandean** 12.15etan.
- *Bergara-Zumaia* (jubenil mutilak). **Igandean** 12.15etan.

▼ Atletismoa:

- **Larunbatean** Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako benjaminen-tzako (8 eta 9 urte) atletismo probak jokatu dira Agorrosinen 10.30etatik aurrera: pisu jaurtiketa, luzera jauzia eta errelebo lasterke-ta.

5

PROFESIONALAK

- Soroa III.a-Alberdi III.a / Lejardi-Galardi.
- Ladutxe - Errasti / Tolosa III.a-Aldazabal II.a.
- Kalonge - Badiola.

Udal Pelotalekuan larunbatean arratsaldeko 4.30etatik aurrea.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ *Motoren bobinak eta*
 - ✓ *Era guztietako instalakuntzak*
- Kruz Gaillastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea

HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkalea 16, ☎ 76 20 62

Iñazio Arregiri

Kaixo Iñazio:

Hire gutuna argitaratu aurretik bidali hidan eta kortesia horregatik nire esker onak eman nahi dizkiat. Beraz, eskerrik asko.

Dena dela, hik idatzitakoa behin eta berriro irakurri ondoren hire iritzietan nahiko oker hagoela iruditzen zaidak eta hau beti grabea bada, zer esanik ez, hik bezala hainbeste urtetan ikastola bateko buru bezala jardun duen baten kasuan are gehiago; hire iritzia zenbaitentzat ongi errotutako zerbait bezala izan zitekek eta kasu honetan hala ez delakoan naxiok.

Hasteko, eta nahiz garrantzi haundiko izan ez, hire lerroetan nire urduritasuna aipatzen duk eta ezetz esan behar diat. Legea Parlamentura eraman aurretik hiru urtetan zehar, gutxienez, batekin nahiz bestekin hitz egin diagu eta beraz, egindakoa nahiko ondo dagoen ziurtasuna badiat. Zer esanik ez, hain garrantzi haundiko lege bat indarrean jartzera joaterakoan beti zalantza txiki bat edo beste sortzen zaik, baina ez gehiago ez eta gutxiago ere. Beraz, alde horretatik, lasai egon hadi. Bestalde, hire ustezko urduritasun hori "gutxieneko konsensus sozialik gabe" aurrera eramaten dugulako izango luke. Ez, mutil, ez. Ez urduritasunik eta bai konsensusa. Besteak beste, eta ikastolen Konfederakundeak luzatu zuten paper baten arabera (barkatu, baina erdaraz zegok idatzita eta honela ekarriko diat "Negociación y movilización" izeneko paperean emandako iritzia) hitzez hitz honela ziotek: "Dicha ley contiene la posibilidad técnica y jurídica para que las ikastolas y otros centros tengamos una correcta solución". Beraz, gutxienez ikastolen

paperetan honelako iritzia jasotzen duk eta hik hau jakin beharko huke, nire ustez. Zer esanik ez, Euskadiko Eskola Kontseiluaren, hots, hezkuntz sistemaren ordezkariaren bilgunearen iritzia baikorra kontuan hartzen badiagu, beste batzuk ez aipatzeagatik. Dena dela, kasu honetan Herri honek gai honetan sekulan ezagutu ez duen konsensu zabalena lortu duk eta ez zegok beste inor konsensu orokorragorik ekar dezakenik.

Geroago, Iñazio, zuena bezalako ikastolen egoera aipatzen duk eta nire iritziz era oker batean:

a. "Era guztietako autonomia baztertzea...", hori ez duk egia. Alde batetik, ez da inor behartzen sare publikoko bidea hartzeko, beraz, gurasoek nahi badute oraingo egiturarekin jarraitu, eskubide osoa eduki bazeukatek; bestalde, Iñazio, ez duk EAJ izan ikastolak bide publikotik sartu dituen, orain dela bost urte zuek, ikastoletako arduradunek, Rekalde sailburu sozialistarekin izenpetu zenuten akordio politiko bat ikastolen planifikazioari bidea emanez, eta garai hartan sare publikoak zer esan nahi zuen denok bazekiagu.

b. "Datorren urtetik aurrera erdal irakasleak izan beharra (D ereduan hamalauko bat)". Dirudienez ez duk ondo ulertu puntu hau ere. Hasteko, hik jakin behar duken bezala, legean irakasle guztientzat euskarari dagokionez, bi perfil definitu dizkiagu, PL1 eta PL2, hain zuzen. Apalenak, PL1, alegia, 1250 ordu eskatzen dizkik, hots, HABEren 11. maila edo, bera, hitz egiteko haina. Bestalde, D ereduan 14 irakasletik bat (erdara emango duena, hain zuzen) PL1ekoa eta beraz euskalduna, izan daiteke eta ez izan behar dela, bi gauzak desberdinak dituk, ez da?

d. "Ikastetxe tipologia berriaren araberan... proiektu pedagogiko orokor bat ezabatuz". Hau gustatu ala ez LOGSEren eskutik zetorrek eta

ez zeukak zerikusirik hemen onartutako legeekin, beraz, orain zelaitik kanpo zegok.

e. "Urteetan zehar osatu den plantila desegitea". Zorionez hau ez duk izango. Hezkuntz Akordioan hau ziurtatu genian, hots, bide publikoa hartzen duten ikastolek beren plantilarekin jarraituko dutela, alegia. Beraz, alde honetatik ere lasai!

Horregatik, Iñazio, hik esaten dituen beste gauza gehienak, hala nola, manifestaldian parte hartzeko hire Bilborako bidaia, legea behar bezala ez ezagupenean jartzen diat. Denbora eta beta edukiko duk zuen ikastoletako gurasoek ildo publikotik jotea erabakitzen badute; bestela, ez duk ezertan kezkatu behar, sare kontzertatuan geldituz gero, gure Gizartean dauden gainontzeko ikastetxe pribatuak bezala izango zarete eta.

Amaitzeko, Iñazio, "Ikastolen historia luzea duk... hik politikan daramana baino luzeago, adibide gisa" esate didak. Zorionez, esango niake nik, dena dela, historia honen hasiera orain dela hogeitabost urte edo jartzen badiagu (Gerra aurretiko ikastolak ahaztu gabe) nire ustez oraindik ikastolek, sare publikoan nahiz kontzertatuan, etorkizun luzea dute. Bestalde, eta niri dagokidanez, hik dakiken bezala urteak denentzat joaten dituk aurrera eta nik hogeitabost urte baino gehiago zeramazkiat leku batetik edo bestetik gure Herriaren aldeko lanetan (ez zekiat politika hitzarekin zer esan nahi huen eta).

Besterik ez. Oraingo honetan idatziz izan diagun harreman hau hurrengoan patxada haundiagoz solasean izango dugun itxaropenez, har ezak besarkada haundiea hire lagun honengandik.

Luis Bandres Unanue

Tiira ba!



Josu Okina

Ibilgailuen zerga

Gobernu Batzordeak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu ondoren, martxoaren 15erarteko epea dago errolda horren aurkako errekurtsioak eta alegazioak aurkezteko, horrelakorik jaso ezean kobrantzarako borondatezko epea emanez ekainaren 1era artekoa izango da.

Elgetako eskolaurrea

1993-94 ikasturterako eskolaurreko (3 urte) matrikula epea martxoaren 15ean bukatuko da. Interesatuak Udaletxeko bulegoetan eman bdezakete izena.

Amodiozko gutunen lehiaketako sariak ostegunean banatuko dira

Datorren ostegunean, hilak 18, BERRIGARAK antolatutako Amodiozko Gutunen I. Berrigara Lehiaketaren sari banaketa egingo da arratsaldeko 7etan Zabalotegipeko aretoan.

Sari banaketa ekitaldiarekin batera Mikel Markez abeslariaren kantaldia eta eskutitz irakurtaldia izango da. Gogoratu behar da 240 karta inguru jaso direla eta, nahiz eta lan bikain ugari egon, hiru bakarrik izango direla sarituak: eskutitz onenak 75.000 pta.ko saria jasoko du, bigarrenak 40.000 pta. eta bergarar onenak, berriz, 25.000 pta.ko saria eramango du poltsikora.

Arantxa Iturbe Euskadi Irratiko kazetaria, Mikel Hernandez irakasle eta idazlea, Ramon Etxezarreta idazlea eta Miguel Angel Elkoroberezibar



Mikel Markezen kantaldia gutunen lehiaketako sari banaketan.

BERRIGARAKo zuzendari ohiak osatuko dute epaimahaia. Erabakia larunbatean hartuko duten arren, horren berri osteguneko ekitaldian eta BERRIGARAKo 100. alean izango duzue.

BERRIGARARI buruzko inkesta

Berrigararen ale bere-

zia izango duzue eskue-tan datorren astean 100 ale horiek gure irakurleekin ospatzeko: bertan, ohizko sekzioekin batera, besteak beste, bi urteotan astekariak izan duen bilakaera eta errebistari buruzko ikerketa bat (Gabonetan 350 inkesta egin zitzaizkien astekari-ko harpidedunei) aurkituko duzue.

Gaztetxea epaitegira

Donostiako Elizbarrutiak eta Bergarako Gaztetxeak Gaztetxeako lokalaren jabegoaren inguruan mantentzen duten auziaren epaiketa izango da astelehenean, hilak 15, goizeko 10etan Bergarako Epaitegian. Gaztetxeako ordezkariak adierazi digutenez, beraiek ahalegin guztiak egingo dituzte bertan jarraitzeko. Honekin loturik, igandean arratsaldeko 7etan, lokala uztearen kontrako jaialdia izango da Gaztetxean 7etan. Azken orduko aldaketarik ez badago, Requiem, Fucking what eta Spok taldeek hartuko dute parte.



Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Desindustrializazioa dela eta, bat egin dute ELA, LAB eta CCOOek

Deba Garaiko ELA, LAB eta CCOO sindikatuek, Euskal Autonomi Elkarte mailan desindustrializazioari aurre egiteko "Ekintza Batasunerako Akordioa"ren berri eman dute. Honako sei puntu hauetako akordio batetara iritsi dira: lehenik eta behin, Berrindustrializazio Mahaia osatzea eskatzen dute. Bigarrenik, Industria Politika baten garapena; hirugarrenik, Enplegu eta Trebakuntzarako Euskal Institutuaren sorrera; bosgarrenik, Negoziazio Kolektiboa bultzatzea eta azkenik, Langileen Heziketa etengabea. Deba Garaiko ELA, LAB eta CCOOek hurrengo asteetarako mobilizazio egutegi bat aurkeztu dute. Hilaren 26an, esate baterako, Arrasateko INEMeko bulegoa okupatuko dute goizeko 11etatik 12etara bitartean. Bestalde, mozioak presentatuko dituzte herri ezberdinetan (29an Bergaran) eta oduerdiko enkarteladak burutuko dituzte Plenoa hasi baino lehen. Azkenik, Bergararik Arrasatera martxa egingo da apirilaren 24an, goizeko 10.30etan.



Merkatu berriari irtenbidea topatu nahian ari dira alkatea eta dendarien ordezkario.

Merkatuaren etorkizunaz

Udala eta dendariak irtenbide bat aurkitu nahian

Bergarako merkatuaren etorkizuna zehazteko, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Alberto Arrate merkatuko dendarien abokatua bildu dira aste honetan. Alberto Arratek dendarien proposamenak adierazi zizkion alkateari eta proposamen hauen arabera dendari bakoitza postu bakoitzeko 3 miloi ordaintzeko prest dago. Diru kopuru hau ikerketa baten ondorioa da, Alberto Arratek BERRIGARARI adierazi dionez: "inguruetako merkatuak aztertu ditugu, hain zuzen ere, Ermua,

Arrasate eta Durangokoak eta herri bakoitzaren biztanle kopurua kontutan hartuz Bergarako merkatua Ermukoarekin konpara dezakegu. Han 12m karratuko postu batek 2 miloi t'erdi balio ditu eta hemengoek 17m karratu dutenez 3 milioitan erostea proposatzen dugu".

Udalak 6 miloi eskatzen dio merkatuko dendari bakoitzari eta alkateak BERRIGARARI adierazi dionez, merkatuko dendarien proposamena aztertu ondoren, lehen bait lehen emango du erantzuna.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ **76 10 57** **BERGARA**

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

Azken 5 urteak kartzelan eman ondoren, joan den ostegunean itzuli zen Joseba Askasibar. Hitz labur batzuk egin ditugu berarekin.



Ostiralean Joseba Askasibarri Plazan eskeinitako ongi-etorria.

JOSEBA ASKASIBAR: "Eguneroko bizitzara ohitu behar naiz"

- Ze inpresio izan duzu herrira bueltatzean?

- Egundoko inpresioa izan da nere lagunekin eta familiarekin besarkatzea. Guztiak primeran portatu dira nerekin. Bestalde, herria bera asko aldatu da... Egun gutxi dira bueltan nagoela eta ez daukat ideia garbi bat. Eguneroko bizitzara ohitu behar naiz.

- Eta egin duzun edota egiteko gogo duzun lehenengo gauza?

- 15 egunetan opor batzuk hartu eta gero lanean hasiko naiz Udaltxean.

- Kartzelan nola pasatzen zenuen denbora?

- Jeiki 8etan, gimnasia egin, korrika egin... gosaldu eta patiora joaten ginen 3rak arte. Gero 5ak arte zeldara, berriro be-

hera eta 8etan berriz zeldara. Herriarekin kontaktua izateak asko pozten ninduen. Txarrena da kalean pentsatzen hastea, lasaitasuna mantendu beharra dago.

- Osasun aldetik, zelan?

- Diabetikoa naiz eta oso gaizki, jana oso txarra izan delako. Hasieran ondo baina sakabanatu

egin gintuztenetik egoera zatartu egin zen.

- Eta ongi-etorria?

- Oso emozionantea izan zen. Irtengo nuela jakin nuenetik ilusio haundiarekin nengoen, Baina barruan geratzen direnengatik sentitzen duzun pena ere haundia da. Etxaniz, Oregikin... idazten nintzen eta animo aldetik ondo dabilta.

Eguzkiren deialdia

"Garona, noiz arte?"
lemapean larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 6etan Gasteizen burutuko den manifestaziora joateko deialdia egin du Eguzkik. Arratsaldeko 4.30etan joateko kotxeak izango dira Frontoian. Bestalde, Eguzkik merkatu berrian salmenta zuzena bultzatzeko eskaera egin dio Udalari, beren esanetan, *"horrela nekazaritzaren jarraipena bultzatu eta natura eta ingurugiroa ere babesten ditugulako"*.

Jubilatuentzat egonaldiak

Balnearioetako egonaldietara udaberrian joan nahi duten jubilatuek martxoaren 18a dute izena emateko azken eguna. Ostegunean ere, bideo proiektzioa izango da 5etan Jubilatuetan.

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

• MATRIKULAKETA AURREA •

Mariaren Lagundia Ikastolan eskolaurre eta OHOrako matrikulaketa aurrea egiteko epea **martxoaren 1etik 15era** bitartekoa da. Interesa dutenek, honako hau dute Idazkaritzako ordutegia.

Goizez: 9.00 - 12.30.


Arratsaldez: 15.00 - 18.00.



LASA JATETXEA

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

I
Z
O
Z
K
I
A
K



I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

EHUNDAKA FAMILIA EUSKALDUNEK HARTZEN DITU UDAN EUSKARA-IKASLEAK ETXEAN

HARTUIZUE ZUENEAN ERE:

- Hilabetez, uztailean, abuztu zein irailean.
- Etxeko lanetan lagunduko dizue.
- Neska zein mutila, zuen aukeran.
- 60.000 pzta.ko ordainsaria.

EUSKARAK IRABAZIKO DU ETA ZUEK ERE BAI

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA, MARTXOAK 31

ARGIBIDE GEHIAĢOTARAKO, JO BERGARAKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZURA

BERGARAKO UDALA



EUSKARA ZERBITZUA

KOLOREA BEGIRADA BIHURTZEN DA KOLOREZKO LENTE KOSMETIKOAK MULTIOPTICAS



URDINAK, BERDEAK, GRISAK, NABARRAK... KOLOREA BEGIRADA
BIHURTZEN DA ZUREGAN IRUDI BERRI BAT AURKITUZ. GRADUATUAK
EDO GRADUAZIORIK GABEAK, INORK EZ DIZKIZU NABARITUKO.
ZABAL ITZAZU BEGIAK ESTETIKA BERRIARI.

J. Larrana
OPTIKA
MULTIOPTICAS

Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Eparantza, s/n - ORDIZIA

BAUSCH
& LOMB

MULTIOPTICA
Beti Zuri Begira

DANOK BAT

Artekale 20an

Sorrera

Danok Bat elkartearen artekaletan kokatu aurretik hemen Sagar Pe elkartearen zegoen kokatua, baina hauek lokal hau libre utzi zuten. Danok Bat futboleko aritzen zen laguntza talde baten izena zen. Laguntza talde honek elkartearen egitea pentsatu zuen, eta 1948. ean zabaldu zen. Garai hartan 45 bazkidekin hasi zen Danok Bat.

Hasierako bazkide hauek jarraritzen du elkartearen, Jesús Arizmendik hain zuzen ere. Gaur egun 49 dira elkarte honetako bazkideak, eta beste 14 jubilatutakoak. Elkarte honek bere barne arautegian 60 bazkideetako topea du onartua, beraz 11 leku daude libre.

Bazkide guzti hauen batzbesteko adina 45 urtetakoa da.

Alokairua

Juan Miguel Fernan-

dez, Blas Aizpurua, Jesús Arizmendi, Mariano Pérez eta Brígido Naranjok osaturiko bazkide taldeak adierazi digutenez, Danok Bat elkarteak ez du proiekturik, oraindik behintzat. Elkartearen kokaturik dagoen lokala alokairuan dute hartua, beraz ezin dute beraiek nahi duten guztia egin elkartearen. Lokala beraiena ez denez, bazkide sartu nahi duenak diru gutxiago ordaindu behar izango du sarreraren. Diru kopurua 20.000 pztatakoa da.

Bestalde, bazkideek hilean 1.200 pza ordaintzen dute kuota bezala.



Argazkian Danok Bat elkartearen bazkide batzuk.

Danok Bat elkartearen bazkideen kuotekin eta kontsumoarekin 1.600.-2000 pztatakoko kaja batzen dute urtean. Kontsumoa mantenduz doa Danok Bat elkartearen. Elkarte

honetan %2 ko faltak izaten dituzte batzbestek.

Elkarte honen eguna Erramu Zapatuan ospatzen dute. Egundik honetako bazkide guztiak afari batekin elkartzeko dira.

Besteak beste, Javier Madariaga aipatu digute sukaldarien artean. Esan digutenez, bakailoa eta txerrikumea dira bere errezeta gustokoenak.

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1948an.
BAZKIDEAK: 49.
HELBIDEA: Artekale 20.
PRESIDENTEA: Juan Miguel Fernandez.
ELKARTEAREN EGUNA: Erramu Zapatua.
URTEKO KUOTA: 14.400 pza.

Ainboa Lete

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:

RAMON IRAEGUI



Ramon M. Lili 6
 Tfnoa: 76 23 30
 Faxa: 76 41 54
 20.570 BERGARA

ORDEZKARIA
 BERGARAN



VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -
 ISPILUAK - KRISTAL
 BISELATUZKO
 ATEAK - etab.

Azaliguzuzure ideia
VID-ARTEk
 egingo dizu.

BELANBIDE, Z/G • 20.570 BERGARA
 Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
 Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Indarrean dagoen iharduera komertzialari buruzko legea 1983koa da eta lege haren arabera herri bakoitzeko Udalak ezarri beharko luke komertzioen ordutegia baina orainarte udalek ez dute aginpide hori erabili izan eta sindikatu eta enpresen akordioz zehaztu izan dira ordutegiok eta akordio hauen arabera dendek igandetan ez dute zabaldu izan. Orain, ostera, Eusko Jaurlaritzak denden iharduera arautzeko lege berri bat jarri nahi du indarrean eta, ohi denez, honek aldekoak eta aurkakoak sortu ditu.



Merkatal ihardueren legea dela eta dendari txikiak haserre

A Lege berria maiztzean onartuko da eta bertan adierazten denez, dendek gutxienez astean 33 ordu egin beharko dute lan, baina legeak ez du esaten zenbat ordu lan egin ahal izango den gehienera, eta ondorioz dendari bakoitzak erabakiko du denda noiz itxi edo zabaldu. Sindikatu gehienak lege honen aurka irten dira. BERRIGARARI, Juan Ramon Unamuno, Comisiones Obrerareko komertzio saileko kideak esan dionez "lege berria dendari txikiarentzat kaltegarria izango da. Esaten dute legearekin lan postu

berriak sortuko direla, baina lan postu hauek langile ebentualentzat izango dira eta gainera igande eta jai egunetan egingo dute lana eta honen langilearen lan baldintzak txartu egingo ditu".

Igande eta jai egunetan zabaldu ahal izateko langile gehiago beharko ditu dendak edo enpresak eta Unamunorentzat "dendari txikiak ezin izango dute komertzio handiek duten indarrekin lehiatu eta pixkana beraien indarra galduko dute eta azkenean desagertu egingo dira. Gainera ez da egia lan postu

berriak sortuko direnik zeren guk egindako ikerketa baten arabera, lege berriarekin sortuko den lan postu berri bakoitzeko 3 lan postu galduko dira".

Kontsumitzaileen beharrak

Jakina, tartean beste jende baten interesak ere badaude eta horien artean dira kontsumitzaileenak. Badirudi jendea gero eta gehiago joaten dela komertzio handietara (maxi, hiper, ea...) eta estatuan jadanik igandetan ere zabaltzen dira dendak.

Unamunok badu hala ere, honen kontrako arrazoirik: "guk uste dugu orain gizarteak ez duela eskatzen igande edo jai egunetan dendak zabaltea. Hala eta guztiz ere, denon baldintzak hartu behar dira kontutan eta argi dagoenez dendari txikiak ezin dituztela ordutegi hauek mantendu ezin dugu kapritxoz hainbat langile kalera bidali.

Gainera, lege hau egiteko, esaten dute Europa hartu dutela eredu, baina European dendak igande eta jai egunetan itxita daude, zeren guztia erregulatua dago".

Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasuna alde

Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasunarentzat "lege berria ondo da go ordutegi arazoak dituzten kontsumitzaileenentzat. Elkarrekin honetarako egindako ikerketa batean ikusten da badagoela gizaratean 26 eta 40 urte bitarteko jende bat obiz-

ko orduetatik kanpo erosketak egitea eskatzen duena".

Ikerketaren arabera, argi omen dago ordutegi librearekin arrakasta handiagoa duela hiri handietan eta lehen esan dugun moduan Estatu Espainiarran ordutegi librea indarrean dago eta egindako ikerketan adierazten denez "Estatuan 1988an gehiengoa ordutegi li-

brearen aurka zegoen baina 1991n egindako beste inkesta batean Estatuako jende gehiengoa igande eta jai egunetan dendak zabaltzearen alde agertu zen".


Gainera Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasunaren iritziz ordutegi librearekin kontsumitzaileenentzat abantaila ugari dakar, beraien ustez: "kontsumitzaileak es-

kubide osoa du aukeratzeko noiz eta non erosi berak nahi duena, ordutegi librearekin zeharo berrituko litzateke eskaera eta eskaintzaren legea.

Baina honek ez du esan nahi derrigorrez denda guztiek zabaldu behar dutenik igande edo jai egunetan hori bakoitzaren esku gelditu da eta".

JOXE ANTIA, "ANTIA" HARATEGIKO NAGUSIA

"Nik uste dut ordutegi librea txarra izango dela denda txikien jabeentzat, zeren gu langile eta jabe, biak, gara eta ezin dugu denda aste osoan zehar zabalik eduki. Egin behar litzatekeena da, farmaziak eta egiten duten moduan asteburuan guardiako denda bat zabaldu".



KARLOS GABILONDO, BERGARAKO EROSKIKO ARDURADUNA

"Eroskik printzipioz ez du bere ordutegia zabalduko, hori bai kompetentziako beste enpresa bat igandetan zabaltzen hasten bada, guk ere zabaldu behar dugu. Bergaran orain daukagun ordutegia uste dut bezeroentzat egokiena dela, dagoen eskaerari guztiz erantzuten diogu eta".



Aranerrika, 4
☎ (943) 76 30 57

HALTZARI

BERGARA
Gipuzkoa

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

- Martxoaren 18tik aurrera berriz ere zabalik
- Denda berriztu dugu
- Zatoz altzari modelo berriak ikustera

FAGOR 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA



APPÉNIZ

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA**

Banatzailleak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

Athletic-i gola sartzean Realzaleek txalo jotzeaz, eta alderantziz, zer?



Manolo Arruabarrena
59 urte, realzalea

Tontokeria horiek alde batera utzi behar dira. Bakoitzak berea defenditu bai, baina bestearen kontra joan ez.




Maribi Oregi
35 urte, athleticzalea

Ez zait ondo iruditzen. Lehenbizi Athletica baina Realari ere lagundu egin behar zaio.



Loli Etxeberria
50 urte, realzalea

Ez dut ikusten ondo besteak ere nolabait gureak direlako. Baina zoritxarrez bietan gertatzen da hori.



Juan Aspiazu
60 urte, athleticzalea

Ni lotsatu egiten naiz nahiz eta hori minoria batek egin. Ez dakit nondik datorren be hori.

• H E Z I L A N •

LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

IKASTAROAK	ORDUAK	HASIERA
KONTABILITATE PLANGINTZA OROKORRA	60	93 - 3 - 15
AUTOEDIZIOA (VENTURA)	30	93 - 3 - 15
AUTOMATA PROGRAMABLEAK (SIEMENS)	40	93 - 4 - 19
ORDENADORE BIDEZ EGINDAKO DISEINUA (AUTOCAD)	40	93 - 4 - 19



☎ 76 38 40
Faxa: 76 38 41



**Justizia?
Inuzente,
Inuzente...**

Inestrillas libre lagatzeko erabakiak aho zabalik utzi du jende gehiena, baita askatasun hori eskatzen zutenak ere. Errealak orain urte batzuk, Madrilen 1 eta 4 irabazi eta "benetan?, benetan?" errepikatzen zuen errealezalearen moduan, sinistu ezinda.

Egun batzuk beranduago, Txikierdi epaitzen dute, eta filosofatzeko adina gartzela-urte botatzen dizkio tribunal berak. Epaiketa bien arteko diferentziarik nabarmena horixe izan da, bati jarri dioten zigorra eta besteari eman dioten oparian, zeren, kanpotik begiratuta eta oinarrian oso antzerakoak baitziren bienak: lekuko edo kide baten deklarazioetan oinarrituta salaketa dago bietan, aurrez egindako adierazpenak noski. Epaian, lekuko edo kide biek gezurtatu egiten dituzte aurreko deklarazioak. Emaitza: Inestrillas kanpora, Txikierdi barrura.

Justizia bera nahiko injustoa ez balitz, egun batzuk beranduago Gobernuak esku bat botatzen dio eta tortura egiteagatik gartzelan zegoen Guardia Zibil tropa bat indultatzen du.

Eskerrak oraingoz inuzentea naizenari, eta Justizian sinestuko banu Inuzente, Inuzente...

Beñardo Kortabarria



**Cremoso
cappuccino**

Beranduxko baina neri ere iritsi zait Mondragoetik inguruetara zuztarrak zabaldurik eta indarturik dauzkan FAGOREn fantasia erromantikoa. Mondragoeko herritik dator, bada, notizia.

Bi orritako kartan, gaztelaniarik ponpoxoenean, erretratu eta guzti, imaginazio ariketak egiten hasi da FAGOR, ni irabazi nahian. Eta Veneziako San Marco plazan, *Florian* kafetegian *café cremoso cappuccino* bat hartzen ikusi nahi izan nau; hala dinost behintzat eskutitzean.

Inondik ere aulki patxadakoren batean jarrita, hanka bat bestearen gainean, esku batez belauburua goxo goxo igurtziz, bestean purotzarren bat dudala, ke zurrubilo batean ikusi nahi nau. Ez dago txarki.

Kafetera magiko bat eta dozenerdi inguru taza, zeinek bere koloreko kafea duelarik, bits eta guzti, ipini dizkit ondoren FAGOREk begien aurrean, neri ere bista luzatzeko eskatuz. Neureak izan ei daitezke guztiak erraz erraz! Baxera joko distiratsu baten erretratua luzatzen dit hurrengo.

Dena alferrik, baina! Ez bihotza beratu zait, ez kartera-boltsikoak zabalduko dizkiot. Ez nau irabaziko, hitz batean. Fantasiaren begiak luzeak ditu FAGOREk, Italiaraino ailegatzen zaizkio eta; baina belarriak aukeran *motxak*, eta ezin du entzun Veneziako nere tokaio santuaren plazan ere euskaraz edo akaso italiano makarronikoan dihardugula. jai daukagu negozioan, beraz; ezin dugu elkar ulertu. Chiao FAGOR.

Markos Balentziaga

Aranzabal

OIHAL ETXEA

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak



GAZTELU
Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 **BERGARA**

Beheko Taberna


Menestra eta konejoo dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
☎ 76 06 37

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

*Eguneroko janariak / Txiteizatzak
Kazalatzak / Txabierrak*

Matxlategi 1, Tfnoa: 76 39 53

KONDE

PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



□ Dorletako Amabirginari bisita

Bergarako zikloturistek joan den igandean (martxoko lehen igandea) egin zuten urteko lehen irteera. Ohitura denez, zikloturisten patroia den **Dorletako Amabirginaren** irudia bisitatzera abiatu ziren San Martin plazatik, argazkian ikus ditzakezuen 39 zikloturista bergararrak. Lora sorta bikaina oparitu zioten Dorletako Amari. Bergarako zikloturistek 30 irteera egiten dituzte urtean zehar. Aurtengo azkena, uztailaren 3an Orduñara egun guztirako egingo dutena izango da.




Udal langileak landatu dituzte aste honetan, Zuhaitz Egunean landatu behar ziren arbolak.

□ Zuhaitz landaketa

Otsailaren 28an ospatu beharreko **Zuhaitz Eguna** elurteagatik bertan behera geratu zenez, orduan landatu ez ziren arbolak landatzen ibili dira udal langileak asteen zehar Elusu gainan (Askagain elkartearen inguruan). Ezin izan da aktu ofizialik egin, komenigarria zelako zuhaitzak (150 inguru) lehen bait lehen landatzea eta, beraz, datorren urtera arte itxaron beharko dute hurrek.

□ **Aranzadi Ikastolako konserje berria**

Aitor Belategi 22 urteko bergarra dugu Aranzadi Ikastolako konserje berria. Guztira 65 bat lagun aurkeztu ziren lanpostu hori eskuratzeko asmoz eta hainbat proba egin eta gero (teorikoa, praktikoa eta elkarrizketa pertsonala) Aitor Belategi **San Blaseko** gaztea izan zen aukeratua. Aste honetan bertan ekin dio gogoz lanari eta guk zorterik onena opa diogu.



Aitor Belategi.



□ **60 urte ezkontuta**

Josefa Zabaleta eta Alejandro Alberdi bergararrek Aizpurutxon ezkondu zireneko 60. urteurrena ospatu zuten joan den otsailaren 22an. Josefak eta Alejandrok 5 seme-alaba eta 16 loba izan dituzte eta dagoeneko 3 birloba ere badituzte. Ondo baino hobeto inguraturik daude bai Josefa eta Alejandro, eta guztiak bazkari bat egin zuten egun berezi hori ospatzeko. Zorionak bioi eta ondo segi, platinozko eztaietarako gutxiago geratzen da ta.


Zertan dibardute ba?

MANUEL TEJADA



31 urteko bergarra honek irabazi zuen larunbatean Zuazun (Nafarroa) jokaturako Bergara XIII. Ehiza Txapelketa, trofeoa eskuratuz. Guztira 43 partaide izan ziren.

AMAIA LABAIEN



Andoingo Zine eta Bideo Eskolan ikasketak burutu dituen 25 urteko bergarra hau Kultur Etxeko bideo tailer zerbitzuko arduradun berria izango da maiatzetik aurrera.

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22



BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

Umore giroan

Eztetzak asko laga andriari

Afalostia zan. Bazeguan Patxi-ko "Txaltxa"nian kafia artzen. Orretan etorri jako Markiegi sastría, eta esaten detsa:

- I, Patxi, Durangora juan biar juau pelota partidua ikustera. Neuk pagauko deuat entradia eta taxisa. Ori esan bezañ laister, atara zeban Markiegik boltsikotik billete pilla aundi bat.

Orduan Patxiok:

- Eztetzak andriari diru asko laga!

Txartel ordeaz fotografixia

Garizuman, txartel denporan, Plaentxiako abade "kontroladore" batek esatetsa Urlixari:

- I, Urlixa, aurten eztok eñ Pazkuakorik.

- Bai, jauna, eñ dot.

- Ez dok ba agertzen ire txartelik.

Urrengo urtian, Urlixak, konfusiñorik ez egoteko, txartela bota biarran bere fotografixia bota zeban.

Pedro Zelaia



Agustin Lazpiur Pasajesen garaile.

BERGARAKO MOTOKROSSLARIAK EZIN HOBETO PASAIAN

Marka guztiak hautsi zituzten gure motokrosslariek joan zen igandean (73-III-11n) Pasaian jokatu zen Gipuzkoako txapelketako proban. Agustin Lazpiurrek, Luis Berasategik eta Juanito Peñagarikanok hiru lehenengo postuak lortu zituzten. Gure zorionik beroenak berei.

1973-III-15. J. L. Bikuña. La Voz de España.

UDALETXEKO BULEGOAK BERRITZEKO OBREN SUBASTA

Atzo aztertu ziren udaletxe azpiko bulegoak berritzeko obren subastako eskaintzak. Obren ondoren, bulegoak, artxihoak eta Udaltzaingoa jarriko dira bertan. Aurkeztutako eskaintza guztien artean Alfonso Trujillorena aukeratu da. Obren kostua 679.000 pta.koa izango da.

1968-III-12. Alustiza. La Voz de España.

ORAIN DELA...

EDERRAGO EGINGO ZAITUZTEN SARIAK

LILURA edertze-institutuan sari asko dituzu zain. Bertan jasotzen duzun zerbitzu bakoitzeko, martxoan eta maiatzaren zozketatuko diren 63 sari bikainetako bat lortzeko aukera emango dizun txartel bat eskuratuko dituzte.

BERROGETAMAR LOTE

HYGEA, higiene pertsonalerako produktuak edo, SORTEGE, ilearen edertasunerako produktuak.



Lote bakoitza:
12.000 pzta.

HAMABOST "EDERTZE TXEKE"


Edertze Integralezko Zerbitzu-Zentro batean erabateko tratamendua jasotzeko aukera emango dizuten "edertze txekeak".



Txeke bakoitza:
30.000 pzta.

ASTEBETEKO "OSASUN ETA EDERTASUN" OPORRAK

Bi lagunentzako egonaldia, Italian, Gardako lakuaren ondoan, PORTOFINO'S BEAUTY FARMen instalazioetan, gastu guztiak ordainduta.



Sariaren balioa:
700.000 pzta.

NOTARIO ETA GUZTIKO BI ZOZKETA, 1993ko MARTXOAREN 15ean ETA MAIATZAREN 10ean



Zumelaga


JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

KOLDO MARTIN

"Bergarako Udaletxeak 12 arku ditu". Horixe zen aurreko Galde Debaldeko erantzun zuzena.

KOLDO MARTIN suertatu da aste honetako Irabazlea. Berarendako, beraz, **HERRAN ETXEAk** emandako saria. **ZORIONAK !!**

Eta besteok segi asmatzen, bila dabilenak topatu egiten du eta! Animo!!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**




Matxiategi, 3. 76 12 22

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



KOLDO MARTINEK jaso du aste honetan HERRAN ETXEAK emandako saria.



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUA JANTZIDENDAK emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Herria txukun edukitzea ez da izan azken urteetako ardura bakarrik, nahiz eta orain bai jendeak eta baita erakundeek ere horretan gogor jardun.

Garbitasun arazo hau aspalditik eduki du, dirudienez, Komenio kalearen barrenean dagoen beste kale estu horrek (Lorelei-Galarreta bitarteak), kale horren hasieran, etxeko kantoian, aspalditik Bergarako Udalak ipinitako debeku-iragarkiak ederto adierazten duenez.

Nahiz eta gaur egun kale horren garbitasun arazo larriena jaietako txixa-leku izatea izan, antzinan zaborrak botatzen ziren kale horretan eta horregatik multa gogorra adierazten du aitaturako kartel horrek.

Zenbateko multa ezartzen da iragarki horretan zaborrak kalean botatzearren?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

XIX. Gorlako Txirrindulari Igoera jokatu da igandean

Bergarako Txirrindulari Elkarteak, Udala eta Udal Kirol Zerbitzuaren laguntzaz antolatuta, Gorlako Txirrindulari Igoeraren XIX. edizioa jokatu da igandean Bergaran. Goizeko 11 terdietan beteranoentzako probari emango zaio hasiera eta orduerdi beranduago beteranoen txanda izango da, goizeko 11etatik aurrera edozein ibilgailuentzat bidea itxiko delarik.

Txirrindulariek Martin Deunaren plazatik Iturriberriera doan bidea bete beharko dute (8.500 km.) eta afizionatu zein beterano onenak parte hartuko dutela espero da. Proba honetako irabazlearen artean, besteak beste, Alberto Fernandez (lehendabiziko edizioan, 1975an), Julian Gorospe (81), Pello Ruiz Cabesta-



Julian Gorospe zaletu bergarar batekin (1981).

ny (82), Xabier Lazpiur (90) edota Alfredo Irusta (91n, eta probako errekorra duena 21'09"rekin) aurkitzen dira. Beteranoei dagokienez, Gor-

lan 7 garaipen lortu dituen Koldo Lamikizek du probako errekorra 24'24"rekin. Aurtengo edizioak 500.000 pta. inguruko aurrekontua du.

Pala txapelketa

Martxoaren 28tik aurrera III. Binakako Pala Txapelketa (gomazko pelotarekin) jokatu da Osintxuko pelotalekuan. Interesatuek Kirol Zerbitzuan eman dezakete izena martxoaren 23a baino lehen, bazkideek 1.000 pta. eta gainontzekoek 2.000 ordainduz.

Pelota kiniela

Bi lagunek asmatu zuten "Berrigara pelota kiniela"ren 3. ihardunaldia, bakoitzak 18.340 pta. irabaziz. Igandean Etxaniz eta Zezeagak Eugi eta Belokiren aurka Eibarren jokatu duten partidurako boletoak ohizko tokietan bete daitezke.

Bergara garaile

Ikusmin haundia sortu zuen igandean Agorrosinen Aloña Mendi eta Bergara K.E.k jokatu zuten partidua. Horren lekuko, eta aspaldiko partez, takilletan jende ilara luzeak izan zirela, argazkian ikusten den bezala. Bergara K.E.ko ekonomiak ere eskertu zuen bai derbia, 500.000 pta. batu bait ziren azken urteotan Agorrosinen izan den sarrerarik onenetarikoan. Eta festa borobiltzeko, Bergara 2 eta 0 nagusitu zitzaion Aloñari, Gomez de Segura eta Azkarateren golei esker.




Mujika
Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

Aldoka
Maldoka
TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



Juzgauko Eskola Nazionalako ikasleak. 1959.

Zenbat bergarar pasa ote da Juzgauko eskoletatik? Auzo eskoletako ikasketak amaitu ondoren, bertara biltzen ziren inguruko auzoetakoak ere. Hemen agertzen direnak eskola hartako mutilak dira. Ezkerretik eskumara, honako hauek dira:

Lehenengo ilaran, makurtuta: Mariano Iribecampos, Enrike Azkarate, Elias Lete, Jose Ignacio Arrieta, Pedro Aranguren, Luis Arroyo, Ignacio Fernandez, Jabier Beistegi, Luis Irazu eta Aristides Candelas.

Bigarren ilaran: Bernardo Larburu, Jabier Hormaetxea, Jose Mari Birumbrales, Mazkiaran, Don Martin Martinez (maisua), Alberto Arruti, Jose Mari Mujika, Julio Elkoro, Angel Mari Moreno eta Fernando Otaño.

Hirugarren ilaran: Sabin Urzelai, Andres Mujika, Zeferino Moreno, Jabier Pagaldai, Iñaki Lazpiur, Jose Mari Martinez, Jose Ramon Arakistain, Jabier Olabarria, Juan Karlos Rodriguez eta Rada.

Laugarren ilaran: Antonio Hervas, Jose Migel Berroya, Jose Manuel Retolaza, Jose Luis Moreno, Carlos Garcia, Josu Bilbao, Jose Novoa, Pedro Guallar eta Jose Arturo Santamaria.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Jose Mari Mujika*

**PELI NARBAIZA
IBARZABAL**



Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57



ZINTRUENIGOKO UDAL KANPINA

Tutera, Moncaio, Fiteroko bainuak, bardeak...
oso hurbil.

- Urte osoan zabalik.
- Bungalobak literekin.

ZATOZ ERRIBERARA !!

☎ (948) 81 24 77

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Ozaeta 6an. Amueblatua edo amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

Neska bat behar da **Donostian pisua konpartitze**ko. ☎ 76 19 29.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Arrizurlin garajea salgai. ☎ 74 30 55/74 43 19

Jacan etxe bat alokatzten da. ☎ 73 07 60. Be-goña. (gauzez).

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Pisua salgai Herri Lagunak kalean. ☎ 76 24 79.

Garajea alokatzen da Zurraderon ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauzez).

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Artzamendin muebleekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (Getatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

DENETARIK

Kerosenozko estufa japoniarra salgai ☎ 765584.

Esklatzeko botak (44a) eta **Snow-Board** eskialtzeko tabla salgai ☎ 76 16 33 (Iñaki).

Bateria salgai. ☎ 76 47 07 (Richar).

Mendiko bizikleta (GAC) salgai ☎ 76 47 94.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako **klase partikularrak** ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai. ☎ 76 50 18.

Skiak (1.40 zm) eta **botak** (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Egunero **Bergararik Zornotzara** joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

Etxean 2. BUP mailako partikularrak hartuko nituzke ☎ 76 38 71.

Etzeko gela bikoitze bateko altzarriak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Errekuperatutako eta berriztutako altzarriak salgai. ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatant (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Softwaredun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

SEGA Megadrivea salgai. (8 jokurekin). 35.000 ppta. ☎ 76 45 21 (Jabii).

LANA

AutoCAD, FP2 Informatikan praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta **etzeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Etxean lan egiteko aukera ematen diguzu. Aretxabaletako 161 postakutxara (20550) bidalizu karta bat.

Hildakoak

Jose Aldazabal Sarasketa
martxoak 7, 84 urte

Txomin Frías Goikoetxea
martxoak 9, 69 urte

Gloria González Rodríguez
martxoak 10, 62 urte

Genoveva Ibarra Dorronsoro
martxoak 11, 94 urte

Jaiotakoak

Ander Orbegozo Igartua
otsailak 15

Borja Elkoroberezibar Azkoaga
martxoak 1

Maddalen Arregi Arrieta
martxoak 2


Markos Mujika Arriaran
martxoak 3

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14



UNITED COLORS
OF BENETTON.

SPRING / SUMMER COLLECTION 1993

ORAIN ERE ARRASATEN